



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zerbitzua edozein taberna, jatetxe, diskoteka,... etab joaten diren bezeroentzat zuzenduta dago.

Eskaintzen dugun produktua sentsorearen alokairua lokaletan da, horrek zerbitzu bat ematen duena app baten bidez.

Produktu honen bezeroak lokaleetako jabeak izango dira, aldiz app-aren bidez eskainitako zerbitzua app-ak instalatzen duten edozeinek erabili ahal izango ute, guztiz doainik dela.

Lokaleek sentsoreak instalatuta izatea ezinbestekoa izango da zerbitzua eskaintzeko.

Hala ere, zerbitzua ahalbidetuko duen produktu fisikoa lokalei alokatu edo erosi egiteko aukera emango diegu, zerbitzua kontratatzen duten lokaletan instalatuko ditugu sentsoreak.

Gure produktuaren erabiltzaileak aldiz, app-a deskargatzen dutenak izango dira, zerbitzuaz gozatuko dutenak hain zuzen. Adineko pertsonak informazioa eskuratzeko ez badute teknologia berrietan trebetasunik, beste pertsona batek informatzea komeni izango da.

Lokalek sentsoreak instalatuta izatea ezinbestekoa izango da zerbitzua eskaintzeko.

Guk eskaintzen dugun zerbitzua adin guztiko pertsonentzat balioko du: gazte eta helduentzat, hain zuzen. Hala ere, kontuan hartuko dugu adineko pertsonak ez direla teknologia berrietan ondo moldatzen eta agian beste pertsona batek app-aren informazioa transmititu beharko dio.

Lokaleetako bezeroen artean aniztasun handia egon arren, proiektu honek app-aren erabilera egingo dutenei baino ez da egongo zuzenduta, hala ere sentsoreak app-aren erabiltzaileak zein lokaleko bezeroak direnak zenbatu eta kontuan izango ditu, baina informatuta egoteko aforoaren inguruan, beharrezkoa izango da app-aren erabilera, izan ere app-ak kudeatuko du sentsoreak ematen duen informazioa, eta bezeroei informazioa helarazteaz arduratuko da.

Proiektu honetan merkatuaren segmentazioa geografikoki Euskadiko biztanleriari zuzenduta egingo dugu hasiera baten, ideia aurrera joatekotan merkatu zabalkuntza ez genuke alde batera utziko.

Sozio ekonomiko aldean, app-a erabiliko duten bezeroek ez dute ezer ez ordainduko, aldiz lokalek, sentsorea jartzeko, eta haien bezeroek gure zerbitzuaz gozatzeko, guk eskainiko ditugun sentsoreen alkilerria edo erosketa ordaindu beharko dute. Kontuan izanda gure zerbitzua taberna eta pareko lokaleentzat izango dela bezeroak gehien bat helduak izango dira; ahalmen ekonomiko minimo bat izango dutenak horrelako negozioetan kontsumitzeko.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Hala ere, gure zerbitzua beste lokal edo gune batzuentzat bideratuta egon ahal izango da; udaletxe eta diputazioek erabil eta kontsumitu dezaten, ekitaldi, polikiroldegi eta horrelako lekuentzako.

